POMADA TOPIKOAREN ERABILERA DILTIAZEM GELAREKIN% 2AN

1. Uzkiko fisura bat duzu.
2. Zure gaixotasunari buruzko informazio-orri bat eman zaizu, bai eta beste informazio-orri bat ere, mota guztietako uzki-ondesteko patologia onberari buruzko aholku higieniko-dietetikoak dituena.
3. Pomada-hodia giro-tenperaturan kontserbatu beharko da, haurren irismenetik kanpo.
4. Pomada honek oso ondorio sekundario gutxi dituen sendagai bat du.
5. Gutxi gorabehera 0,5 zm pomada jarriko dituzu 8 ordutik behin hatz erakuslearen gainean, eta, ondoren, uzkian jarriko da, gunea uzki-ertzaren inguruan masajeatuz, barruan sartu gabe.
6. Hasiera batean, tratamendua 2 hilabetekoa izango da.

Zalantzarik baduzu, eskertuko genizuke joan aurretik jakinaraztea.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD